



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

**GOBERNU JUNTAK 2021.04.27an EGINDAKO
BILKURAKO AKTA**

LEHENDAKARIA

MAITE ANTON LENO

OÑATI

BOKALAK

GARAZI LARREA ZUMELAGA
UNAI ELKORO OIANGUREN
AINHOA CABERO GARCIA
MAITANE MUÑOZ GOICOECHEA
ANDER GARAY ZABALETA
GORKA ARTOLA ALBERDI
AINHOA LETE ZABALETA
CRISTINA MARQUINA IGARZA
IRAIZ LAZKANO GARITAONANDIA
IZARO ELORZA ARREGI
ANIK ZUBIZARRETA ARTURO

ANTZUOLA
ARETXABALETA
ARETXABALETA
ARRASATE
ARRASATE
BERGARA
BERGARA
BERGARA
ELGETA
OÑATI
OÑATI

ETORRI GABEAK

MARIA UBARRETXENA CID
ARITZ MURUA ACHA
JOSÉ RAMÓN ZUBIZARRETA ALEGRÍA
EUGENIO OTSOA UGALDE

ARRASATE
ARRASATE
ESKORIATZA
LEINTZ-GATZAGA

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA

BELEN TXINTXURRETA IPARRAGIRRE

JUNTAKO KIDE IZAN GABE ETORRIAK

ANDER ELORTONDO BERGARETXE

Behin behineko kontu-hartzailea



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

2021eko apirilaren 27an, 9:30etan, Mankomunitateko lehendakaria, Maite Anton Leno anderea, mahaiburu dela, Gobernu Juntaren ohiko bilkura hasi da, goian aipaturikoak bertan direla.

Martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren azken xedapen bigarrenen ezarritakoarekin bat etorritik (11/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 31koa, COVID-19ri aurre egiteko gizarte- eta ekonomia-arloko premiazko neurri osagarriak onartzen dituen, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen duena), Gobernu Juntaren ohiko bilkura hau bideokonferentziaren bidez egin da, JITSI MEET aplikazioa erabiliz.

1.- Aurreko bilkurako akta onartzea

Gobernu Juntak aho batez ONARTU DU 2021eko martxoaren 27an egindako ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.

2.- ZERBITZU OROKORRAK

2.1.- Foru Kontratazio Zentrala

- Inprimatze ekipoak hornitzeko eta mantentzeko kontratazio espedienteari atxikitzea

Mankomunitate honetako Gobernu Juntak, 2011ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Foru Kontratazioen Zentralak aurrera eramango duen eskuratze zentralizatuko sistemari atxikitzea erabaki zuen, horretarako Foru Aldundiarekin zegoen hitzarmena sinatuz.

Aipatu Zentralak, esparru-akordioaren prozedura bitartez, inprimatze ekipoak hornitzeko eta mantentzeko kontratazio espedientea irekitzeko asmoa du.

Eta Mankomunitate honek ere inprimatze ekipoak behar dituenek, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Inprimatze ekipoak hornitzeko eta mantentzeko Gipuzkoako Kontratazioen Zentralak irekiko duen esparru-akordioaren espedienteari atxikitzea, 2011ko maiatzaren 18ko Gobernu Juntak onartutako hitzarmenean, eta 2011ko otsailaren 22ko 2011/3 Foru Dekretuan ezarritako eran eta baldintzetan.
2. Konpromisoa hartzea enpresa esleipendunari kontratu eratorria esleitzeko Foru Aldundiak esparru akordioa formalizatu ondoren eta hark adierazitako epean, betiere.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

- **Bulego materialez hornitzeko kontratazio espedienteari atxikitzea**

Mankomunitate honetako Gobernu Juntak, 2011ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Foru Kontratazioen Zentralak aurrera eramango duen eskuratze zentralizatuko sistemari atxikitzea erabaki zuen, horretarako Foru Aldundiarekin zegoen hitzarmena sinatuz.

Aipatu Zentralak, esparru-akordioaren prozedura bitartez, bulego materialez hornitzeko kontratazio espediente berria irekitzeko asmoa du.

Eta Mankomunitate honek ere bulego materiala behar duenez, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Bulego materialez hornitzeko Gipuzkoako Kontratazioen Zentralak irekiko duen esparru-akordioaren espedienteari atxikitzea, 2011ko maiatzaren 18ko Gobernu Juntak onartutako hitzarmenean, eta 2011ko otsailaren 22ko 2011/3 Foru Dekretuan ezarritako eran eta baldintzetan.
2. Konpromisoa hartzea enpresa esleipendunari kontratu eratorria esleitzeko Foru Aldundiak esparru akordioa formalizatu ondoren eta hark adierazitako epean, betiere.

3.- INGURUMENA

3.1.- Erabilitako olio bilketako edukiontzia saltzeko espedientea; proposamen bakarra

Mankomunitate honetako Gobernu Juntak, 2021eko otsailaren 23an egindako bilkuran, erabilitako olio edukiontzia enkante bidez saltzeko bideratutako espedientea eta Administrazio-Klausula Partikularren Agiria onartu zituen eta esleitze prozedura irekitzea erabaki zuen.

Horretarako emandako epean proposamen bakarra aurkeztu da, OLIO3R, S.L. enpresarena.

Kontuan izanda Klausula Administratibo Partikularren arabera kontratu hau esleitzeko irizpide bakarra eskainitako prezioa dela eta aurkeztutako proposamenak lizitazio-tasa eskaintzen duela, hau da, 400 €, Kontratazio Mahaiak proposatzen du salmenta hau OILO3R, S.L. enpresari esleitzea, horretarako beharrezko dokumentazioa aurkeztu ondoren.

Kontratazio Mahaiaren proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Kontratazio Mahaiaren proposamena onartzea eta OLIO3R, S.L. enpresari hamar egun balioduneko epea ematea, Mankomunitatearen errekerimendu jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, Administrazio Klausula Partikularren Pleguaren 16. klausulan jasotako dokumentazioa aurkezteko.
2. Kontratu honen esleipena dokumentazioa jaso ondorengo bost lanegunen barruan egingo da.



4.- GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

3.1.- Enpresa Ekintzetarako Zentroa; eskaera berria

- U.O.A.; eskaera berria

Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroaren zerbitzu modulu bat erabiltzeko eskaeraren berri eman da. Jarduera honako hau izango da: osasun eta kirol psikologiako zerbitzuak.

Tutorearen txostena ikusirik, eta Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz, Gobernu Juntak, aho batez, ZERA ERABAKI DU:

- U.O.A. ekintzaileari baimena ematea Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroaren (1-ZM) zerbitzu modulua eskusiboki erabil dezan.

Erabaki honen jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean onuradunak ez badu Enpresa Ekimenetarako Zentroaren Erregelamenduaren 8. artikuluan zehazturiko dokumentazioa eta fidantza aurkezten, baimen hau indarrrik gabe geratuko da.

Baimen hau urtebeterako izango da eskatzaileak aipatu dokumentazioa eta fidantza aurkezten duenetik aurrera.

4.2.- 2021eko ekitaldirako turismoko lurralde-proiektuetarako laguntza deialdia

2021eko apirilaren 16an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 2021eko martxoaren 24ko Agindua, zeinaren bidez arautzen baitira lurralde-proiektu turistikoetarako laguntzak, eta haien deialdia iragartzen, 2021eko ekitaldirako.

Diru-laguntzen deialdi honen esparruan aurkez daitezkeen proiektuak aztertu ondoren, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Deialdi honetan aurkezteko ondorengo jarduera edo proiektuak onartzea eta finantzaketa-konpromisoa hartzea diruz lagundu ezin daitezkeen zatiarentzat:

- DEBAGOIENA NATURA..... 70.000,00 €.
- IGNAZIOTAR LURRALDEA..... 10.000,00 €
- DEBAGOIENA GASTRONOMIKA..... 47.000,00 €
- BEHIN BEHINEKO TEKNIKARIA..... 14.940,00 €
- MENDI IBILIAK MANTENTZEKO PIOIA..... 2.853,33 €
- MARKETING PLANA..... 15.000,00 €
- DEBAGOIENEO SARRERA KARTELAK..... 6.000,00 €

GUZTIRA..... 165.793,33 €



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

5.- LEHENDAKARITZA

5.1.- Lehendakaritzaren ebazpenak

Lehendakariak ondorengo ebazpenen berri eman du:

21/17.- - Pasaiako Udaleko lan poltsa erabiliz Mankomunitate honetan Ingurumen Zerbitzuko hainbat behin behineko lan eta ordezkapen egin dituen O.G.I. izendatzea bitarteko funtzionario, 2021eko martxoaren 18tik aurrera, aipatu teknikariaren ordezkapena egiteko, bere gaixotasunagatiko bajaldia bukatu arte. Hileko 2.933,63 €ko ordainsari gordina emango zaio, honela banatuta:

- Soldata: 1009,46 €. (A2)
- Lanpostu-mailako osagarria: 489,86 €. (20)
- Berriazko osagarria: 1.434,31 €.

21/18.- Leintz-gatzagari bidalitako bi fakturak eta Oñatiri bidalitako bigarrena baliogabetzea ez baitute hitzarmeneko gastuak estaltzeko balio, gastu hauek existitzen ez diren heinean.

Bergarari, gehiegi fakturatutako 2.754,95€ itzultzea.

Oñatiti, gehiegi fakturatutako 374,56€ itzultzea.

21/19.- 2021ko martxoko nomina arrunta onartzea ondorengo laburpenaz:

Langileen ordainsariak	Soldata	Gizarte segurantzaz	Elkarkidetzaz	Km	Atxikipenak	Likidoa
Karguak	3.087,54 €	1.167,10 €	0,00 €			
Funtzionarioak	62.576,79 €	17.331,08 €	1.736,76 €	103,82 €		
Interinoak	17.704,31 €	6.102,52 €	230,31 €	111,07 €		
Laboralak	47.086,92 €	16.064,95 €	1.021,74 €			
Guztira	130.455,56 €	40.665,65 €	2.988,81 €	214,89 €	35.267,49 €	95.402,96 €

21/20.- 21/06 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira HIRUROGEITA HIRU MILA SEIEHUN ETA HAMAIIKA EURO ETA LAUROGEITA HAMABI ZENTIMO (63.611,92 €).

21/21.- Lehena. - Bi mila eta hogeiko Debagoieneko Mankomunitateko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

1.- Altxortegiko izakin likidoak, 2020.12.31n:	2.424.933,33 €
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2020.12.31n:	1.582.977,73 €



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Ekitaldiko aurrekontuko zordunak	1.403.745,59 €
Aurreko ekitaldietako aurrekontuko zordunak	60.227,90 €
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	119.004,24 €
(-) Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00 €
3.-Ordaindu gabeko saldoak. 2020.12.31n:	826.551,58 €
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	502.233,10 €
Sarreraren aurrekontuko hartzekodunak:	0,00 €
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	324.318,48 €
Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00 €
4.- Altxortegi-gerakin gordina (1+2-3):	3.181.359,48 €
5.- Obra handietarako (Epele) hornidura:	1.700.866,22 €
6.- Saldo kobragaitzak:	26.841,24 €
7.- Altxortegi-gerakin likidua (4-5-6):	1.453.652,02 €
8.-Finantzaketa lotua duten gastuetarako altxortegi-gerakina:	46.379,51 €
9.- Gastu orokorretarako altxortegi-gerakina:	1.407.272,51 €
10.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	-202.838,46 €
11.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurreko. eragiketen emaitza:	-30.568,36 €
12.- Doiketa aurreko aurrekontu emaitza	-233.406,82 €
13.- Doiketak, gerakinaren finantzatutako obligazioengatik: (2020ko kredituak 2019ko gerakinekin finantzatuak)	1.087.115,19 €
14.- Doiketa finantzaketa lotua duten gastu desbiderapenagatik:	-46.379,51 €
15.- Aurrekontu-emaitza (12+13+14):	807.328,86 €
16.- Txerta daitezkeen kreditu-gerakinak:	718.505,84 €
17.- Txertatu ezin diren kreditu-gerakinak:	688.766,67 €

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio-espeditentearen kopia bidaltzea, indarrean dagoen legedia betez.

Hirugarrena.- Gobernu juntari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

21/22.- A.N.L. andreak aurkeztutako ondare erantzukizun erreklamazioa ez onartzea.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

21/23.- 1.- Erabilitako sukaldeko olioak kudeatu eta biltzeko kontratua ECOGRAS RECUPERACIÓN Y RECICLADO, S.L. enpresari esleitzea bilketa-puntu bakoitzeko 135 €-ko prezioan, gehi 13,50 €, BEZaren % 10ari dagozkionak. Guztira: 148,50 €/bilketa-puntu bakoitzeko. Jasotako olioak esleipendunaren jabetzakoa izango da.

2.- Aipatu enpresarekin dagoen kontratua sinatzea erabaki hau jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 15 laneguneko epean.

3.- Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 62. artikulua betez, Maddi Altuna Odriozola, Ingurumen Zerbitzuko arduradun teknikoa, izendatzea kontratu honen arduradun.

4.- Enpresa esleipendunak adierazitakoaren arabera, kontratu honen xede diren lanetan arituko diren langileei hondakinak eta bigarren mailako lehengaiak berreskuratzeko eta birziklatzeko hitzarmen kolektiboa aplikatuko zaie.

5.- RAFRINOR, S.L. enpresari jarritako 1.386 €-ko behin betiko bermea itzultzea.

21/24.- 21/07 faktura-zerrenda onartzea eta beraien ordainketa agintzea, guztira LAUREHUN ETA HIRUROGEITA HAMASEI MILA BERREHUN ETA HOGEITA ZAZPI EURO ETA HIRUROGEITA ZORTZI ZENTIMO (476.227,68 €).

6.- GALDE-ERREGUAK

- Kontu-hartzaileak jakinarazi du Ogasun Batzordearen hurrengo bilkurarako deialdia bidalita dagoela.
- Maitane Muñozek galdetu du ia Udalek aztertu duten Minbiziaren aurkako Elkartearen lokal eskaera.
- Gorka Artolak esan du, kontu-hartzaileari buruzko txosten juridikoak irakurri ondoren, eskertu nahi diola berak egindako lana.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 10:00etan, bukatutzat eman da bilkura.

LEHENDAKARIA

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA